


Nazio Batuak eta Herri Indigenak



NACIONES UNIDAS
NAZIO BATUAK



centro unesco euskal herria • centre unesco pays basque
unesco centre basque country



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETAK BAKA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



Herri indigenen buruzko Nazioetako
Informazio eta Dokumentazio Zentroa
Centro Internacional de Información y
Documentación de los Pueblos Indígenas

International Information and Documentation
Centre of the Indigenous People



Nazio Batuak eta Herri Indigenak

- Zein dira herri indigenak?
- Zein dira herri indigenen eskubideak?
- Zein da herri indigenen parte hartzearen historia NBEn?
- Nazio Batuetako zein erakundek egiten dute lan herri indigenekin?
- Zer lortu da eta zer dago lortzeke?
- Helbide interesgarriak



Nazio Batuak eta Herri Indigenak

© UNESCO Etxea, 2002

Egilea: Monika Vazquez

Laguntzaileak: Ixone Aierdi, Gonzalo Romero

Itzulpena: Bakun

Diseinua eta maketazioa: SERVISISTEM

Imprimaketa: GRAFICOLOR

I.S.B.N.: 84-931998-1-8

Lege-Gordailua: BI-1442-01



Zein dira Herri Indigenak?

Herri indigenek **300 milioi** pertsona baino gehiago dituzte, munduko lurralde guztietako **70** herrialde baino gehiagotan, eta, gutxi gorabehera, munduko populazioaren **%4** dira.

Herri horiek planeta honetako kultur aniztasunaren **%90** ordezkatzen dute. Aniztasun hori da, hain zuzen ere, bere historiarekin eta bizi diren ingurunearekin batera, definizio bakar batean barneratzea zailtzen duena. Hala ere, Nazio Batuetatik ahalegin handia egin da herri indigena guztiak barneratuko dituen definizio bat eskaintzeko:

Komunitate indigenak, kolonizazioa jasan arren, beren lurrak, kultura, hizkuntza, baloreak... beren ondorengo belaunaldiak kontserbatzeko, garatzeko eta transmititzeko ideia irmoa duten populazioak dira.

Herri indigena gehienek honako ezaugarri hauek betetzen dituzte, nahiz eta ez bete, ezinbestean, horiek guztiak.

- Ongi desberdindutako sistema sozialak, ekonomikoak edo politikoak dituzte.
- Bere hizkuntza, kultura eta sinesbideak dituzte.
- Lurraldearekin oso harreman estua dute.
- Oraindik ere kolonizazio aurreko gizartearen ezaugarriak eusten diete.
- Gizarteko sektore nagusiak ez diren sektore horietakoak dira.
- Gizarte nazionaletik desberdin moduan identifikatzen dira.
- Historia tragikoa dute (beren lurraldeen inbasioa, beren ingurumenaren aldaketa, beren jendearen aurkako biolentzia...).



Zein dira Herri Indigenen Eskubideak?

Herri indigenen eskubideei buruzko adierazpen proiektu bat idazterakoan, oztopo batekin egiten dugu topo: eskuarki, nazioarte mailako eskubideen adierazpenak norbanakoaren ikuspuntutik idatzita egoten dira, eta norbanakoaren eskubideei egiten diete erreferentzia, ez taldeei. Zentzu horretan, **herri indigenek talde moduan onar daitezzen eskatzen dute**, eta, horrela, eskubide batzuk izan herri moduan, eta ez norbanako independente moduan.

Eskaera hori aintzat hartuz, Nazio Batuek gutxiengoan adierazpena egin dute, eta, bertan, herri indigenen eskubideen eta askatasunen onarpenerako, sustapenerako eta babeserako pauso garrantzitsua eman da.

ECOSOCeko (Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseilua) Bazterketaren Prebentziorako eta Gutxiengoan Babeserako Azpibatzerordeak 1994. urtean onartutako **Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adierazpenak** bederatzi bloketan banatzen diren 45 artikulua ditu:

I.- Nortasuna eta giza eskubideak (1, 2, 6 –11 artikulua):

- Nortasun indigenaren eskubidea eta komunitate bateko talde izatearen eskubidea dutela aitortzen dute.
- Beren kulturak eta ezaugarriak babesteko, giza eskubideen markoa ezartzen dute.
- Herri horiek behar duten babes berezia nabarmentzen dute.

II.- Kultura eta tradizioak (12-14 artikulua):

- Kultura babesteko eta garatzeko eskubidea eta indigenen tradiziozko praktiken eskubidea aitortzen dituzte.

III.- Heziketa eta hizkuntza (15-17 artikulua):

- Beren kulturaren eta hizkuntzan hezi ahal izateko eskubidea ezartzen dute.



IV.- Lan eskubideak (18. artikulua):

- Herri indigenentzat lan eskubide guztien aitorpena aurreikusten dute.

V.- Parte hartzea eta erabakiak hartzeko mekanismo propioak (19-24 artikulua):

- Eragiten dieten kontu horietan guztietan parte hartzeko eskubidea nabarmentzen dute, baita beren antolakuntza eta erabakiak hartzeko euren mekanismoak izateko eskubidea ere.

VI.- Ingurumena (25-30 artikulua):

- Herri indigenen ingurunearen eskubideak aitortzen dituzte, lurra eta lurraldea elementu nagusi moduan ezarriz.

VII.- Autogobernua eta autonomia (3, 4, 5, 31-36 artikulua):

- Erabakitze askatasun eskubidea eta tradiziozko politika antolaketako sistema eskubidea aitortzen dituzte.
- Autogobernurako talde eskubidea dagoela onartzen dute.

VIII.- Babes mekanismoak (37-41 artikulua):

- Herri indigenei aholkuak emateko eta ekonomikoki eta teknikoki laguntzeko betebeharra ezartzen die estatuei.
- Herri indigenenganako nazioarteko erakundeen ardura aipatzen dute.

IX.- Adierazpenaren irismena edo muga (42-45 artikulua):

- Gizon eta emakume indigenen berdintasuna bermatzen dute.
- Giza eskubideak izatea bermatzen dute.
- Adierazpeneko eskubide guztiak herri indigenentzat gutxieneko eskubide moduan hartzen dituzte.



Zein da Indigenen parte hartzearen historia NBE-n?

Indigenen NBEko parte hartzearen une garrantzitsuenak ondorengo hauek izan dira:

- **1927:** Urte horretan indigena estatubatuarren ordezkaritza baten lehen parte hartzea jazo zen, **Nazioen Liga** deituriko bilera batean, eta parte hartze horren helburua beren herrien aitortpena eskatzea izan zen. Hori NBEn parte hartze zuzena izan ez bazen ere, gertaera horrek herri indigenak ondorengo ekitaldietan ere kontuan izatea ekarri zuen berarekin.
- **1977:** Urte horretan hasi ziren, egiaz, NBEn parte hartzen, GKE batzuek Ginebran egin zen **Ameriketako Herri Indigenen Bazterketaren Aurkako GKEaren Nazioarteko Batzarrera** joateko dei egin zietelako.
- **1982:** NBEko lehen parte hartze horren ondotik, *Populazio Indigenei buruzko Lantaldea* sortu zen urte honetan, ECOSOCeko (Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseilua) Giza Eskubideen Batzordearen barruan.
- **1989:** Urte horretan eta *Lanaren Nazioarteko Batzarrean*, OITren (NBEko Lanaren Nazioarteko Erakundea) hitzarmen bat onartu zen; bertan ezartzen da herri indigenak eurak direla beren lehen-tasunak zein diren eta beren garapen prozesuak aurrera nola eramanean erabaki behar dutenak, eta estatuek izan behar dutela herri horien baldintza sozialak, kulturalak eta ekonomikoak babesteko arduradunak.
- **1993:** NBEk urte hori *Munduko Herri Indigenen Nazioarteko Urtea* izendatu zuen.
- **1993:** NBEk *Munduko Herri Indigenen Nazioarteko Hamarkada* aldarrikatu zuen.
- **1994:** ECOSOCeko Giza Eskubideen babesaz eta sustapenaz arduratzen den azpibatzerdeak *Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena* onartu zuen.



- **2002:** Urte horretan *Indigenen Gaietarako Foro Iraunkorra* osatu zen, ECOSOCeko erakunde aholkulari moduan.

Horretaz guztiaz gain, herri indigenak mundu mailako beste adierazpen eta hitzarmen batzuetan ere izan dira kontuan: 1992ko *Rioko Adierazpena*, *Bioaniztasunari buruzko Hitzarmena*, *Klima Aldaketari buruzko Hitzarmena* eta *Basamortutzeari buruzko Hitzarmena*. Hitzarmen horietan guztietan herrien kulturaren errespetua bereziki azpimarratzen da, baita beraiek beren lurrekin dituzten harremanak eta ingurumenari eta garapen jasangarriari egiten dieten ekarpena ere.

Indigenek, lehen aldiz, NBEn parte hartu zuten duela 20 urte baino lehen, eta parte hartze horrek bost kontinenteetako indigenen erakundeak harremanetan jartzeko sarea sortzea bideratu du, eta, jada, nazioarteko parte hartzearen esperientzia garrantzitsua du.

Gertaera horri esker, herri indigenek aukera dute beren lurraldea eta beren idiosinkrasia defendatzeko.



Nazioarteko zein Erakundek egiten dute lan Herri Indigenekin?

Herri indigenen eskubideen babesean eta sustapenean Nazio Batuek izan duten parte hartzea asko hazi da azken urte hauetan.

Gaur egun, Nazio Batuen zenbait erakundek egiten dute lan herri indigenekin edo herri indigenentzat: **OIT** (Lanaren Nazioarteko Erakundea), **JINE** (Jabetza Intelektualaren Nazioarteko Erakundea), **UNESCO** (Nazio Batuen Erakundea Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako), **Herri Indigenei buruzko Lantaldea, Indigenen Gaietarako Foro Iraunkorra...**

Horietatik guztietatik hiru erakunde hauek azpimarratu beharko lirateke, herri indigenekiko harreman lan garrantzitsua egiten baitute:

- 1.- **Herri Indigenei buruzko Lantaldea.**
- 2.- **Indigenen gaietarako Foro Iraunkorra.**
- 3.- **UNESCO** UNESCO (Nazio Batuen Erakundean Hezkuntzarako, Zientziarako eta Kulturarako).

1.- **Herri Indigenei buruzko Lantaldea** 1982an sortu zuen ECOSOCek, herri indigenen eskubideekin lotutako bi helburu betetzeko asmoz:

- Herri indigenen giza eskubideekin eta oinarritzko askatasunekin lotura duten nazio, lurralde edo mundu mailako gertaerak berriaztertzea.
- Indigenen eskubideei buruzko nazioarteko arauak egitea eta beren garapenean arreta berezia jartzea.

Nazio Batuen sisteman talde hau giza eskubideen sustapenean eta babesean lan egiteko ardura duen Azpibatzerde baten mende dago eta talde hori, era berean, ECOSOCeko Giza Eskubideen Batzordearen mende dago:



Lantaldea bost aditu independentek osatzen dute, bat munduko lurralde bakoitzeko eta, lantalde horretako kideak izateaz gain, Azpibatzerdeko kideak ere badira.

Urtero biltzen dira Ginebran, ekitaldi publiko batean, eta bertan parte har dezakete gobernuetako begiraleek, NBEko bulegoek (UNESCO, UNICEF, FAO...) eta parte hartu nahi duen erakunde, herri edo komunitate orok

2.- Indigenen gaietarako Foro Iraunkorra Nazio Batuen sistema-ren barruan martxan jartzeko ideiak ia hamarkada bat darama lane-an. Proposamena, ofizialki, 1993an Vienan egin zen **Giza Eskubi-deen Mundu Mailako Batzordean** aurkeztu zen, herri indigenen arazo eta interesak eurek lantzeko espazio bat sortu behar zela uste baitzuten.

* Azpibatzerde honen izena berriki aldatu da. Lehenago Gutxiengoen Bazterketaren eta Babesaren Prebentziorako Azpibatzerdea zen.



Nazio Batuak eta Herri Indigenak

Proposamen horretatik abiatuz, 2000. urtean ECOSOCek Indigenen Gaietarako Foro Iraunkorra sortzea erabaki zuen, honako funtzio hauen kargu egiteko:

- Herri indigenen garapen ekonomikoa, kultura, ingurumena, hezkuntza, osasuna eta giza eskubideei buruzko kontuetan jarraipen bat egitea eta ECOSOCi gai horiei buruzko aholkuak ematea, eta, horretaz gain, egoki deiren aholkuak ematea.
- Indigenen gaiekin lotura duten jarduerak zabaltzea, eta, Nazio Batuen sistemaren barruan, horien barneraketa eta koordinazioa sustatzea.
- Indigenen gaiei buruzko informazioa eta dokumentazioa prestatzea eta zabaltzea.

Foroa 16 aditu independentek osatzen du; horietako 8 nazio mailako gobernuko autoritateek izendatzen dituzte, eta gainerako 8ak ECOSOCek izendatzen ditu. Guztiek beren jarduerak hiru urteko epean garatzen dituzte, baina beren agintealdia beste urte batez luzatzeko aukera dute.

Lantaldea eta Foro iraunkorra honetan bereizten dira: lehenak, batez ere, herri indigenen eskubideekin lotura duen guztian egiten du lan eta Foroak arazo indigenekin lotura duten beste gai asko lantzen ditu

3.- UNESCO 1946an sortu zen, hezkuntzaren, zientziaren eta kulturaren bidez nazioen artean bakezko lankidetzat sustatzeko. UNESCOren helburu nagusietako batzuk hauexek dira: analfabetismoa murriztea, ezagutza zientifikoak zabaltzea, komunikazio eta elkartruke zientifikoak, hezkuntzakoak eta kulturalak erraztea mundu mailan eta gizateriaren ondare artistikoa eta kulturala babestea.

Munduko Herri Indigenen Nazioarteko Urtean (1993) UNESCOk zenbait herri indigenaren arteko topaketa antolatu zuen, elkarriketa konstruktiboei hasiera emateko, eta beren bizi baldintzei eta helburuei buruzko erabakiak hartzeko.

Herri indigenekin harremanetan zeuden eta erakunde horrek aurrera eraman dituen jarduerak honakoak dira:



- Herri indigenen alfabetizazioa eta hezkuntza helburu zuten programak garatzea, elebitasuna eta kultur aniztasuna sustatzeko asmoz.
- Herri indigenei laguntza teknikoa erraztea, beren garapena eurek kudeatu dezaten eta beren hizkuntzei eta tradizioei eutsi diezaieten.

Zer lortu da?

Herri Indigenentzako Foro Iraunkorra: Nazio Batuen sistema-ren barruan herri indigenen lorpen garrantzitsuenetako bat Foro Iraunkorra da. Foroak modu jarraian egiten du lan herri hauei eragiten dieten gai guztietan, nazioarte mailan informazioaren barreiatzean eta herrien ekintzak nazioarte mailan hedatzean; horrez guztiaz gain, ECOSOCekin harreman zuzena du, aholkuak ematen dizkio eta baita herri indigenak babesteko neurriei buruzko gomendioak ere.

Aniztasun Biologikoaren Hitzarmena: : Gizateriaren ongizaterako eta garapenerako ezinbestekoa den aniztasun biologikoaren galerak nazioarteko komunitatean kezka sortu zuen eta kezka horrek gobernuak biltzea eta dokumentu bat eratzea eragin zuen, 1992. urtean. Dokumentu horrek baliabide genetikoak, espezieak eta ekosistemak babestera behartzen zituen, dokumentu hori Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena da.

Hitzarmen horretan kontuan hartzen da populazio indigena eta sinaitzaileak honetara behartzen ziren: *“...aniztasun biologikoaren erabilera jasangarrirako eta kontserbatzeko bizimodu tradizionalak dituen komunitate indigenen ezagutza, praktikak eta berrikuntzak errespetatzea, zaintzea eta mantentzea...”*

Zer dago lortzeke?

Oraindik ere konpontzeke dagoen kontua da **Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena** betetzea, eta, batez ere, **autodeterminazio eskubidea**. Beren gobernu autonomia ez onartzeak gainerako eskubideak aztertuak izan ezin ahal izatea eragiten du.



Orain, ea zer dakizuen Herri Indigenei buruz?

1. Zein dira herri indigenen ezaugarri nagusiak?
2. Zein oztopo ditugu Herri Indigenen Eskubideen Adierazpena idazterakoan?
3. Zein bloketan dago zatikatuta Adierazpen hori?
4. Zein dira herri indigenekin lan egiten duten Nazio Batuetako erakunde nagusiak?
5. Zein dira Herri Indigenen Foro Iraunkorreko funtzioak?
6. Zertan bereizten dira Foro Iraunkorra eta Herri Indigenei buruzko Lantaldea?
7. Zer jarduera egiten ditu UNESCOk herri indigenekin harremanetan?
8. Zer dute oraindik ere lortzeke herri indigenek Nazio Batuen Sistemari dagokionez?



H

Helbide interesgarriak

Ondoren, herri indigenei buruz informazio gehiago lortzeko erabilgarriak diren web orrien helbide zerrenda eskaintzen dizugu:

NBEko Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren Bulego
www.unhchr.ch/html/menu2/ind_main.htm

Indigenen giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen egoerari buruzko Giza Eskubideen Batzarreko Kontalari Berezia
www.unhchr.ch/spanish/indigenous/ind_sr_sp.htm

OIT: Herri independentetan herri indigenei eta tribuei buruzko Hitzarmena (N. 169)
www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/62_sp.htm

Herri Indigenei buruzko NBEren dokumentuak
www.unhchr.ch/huridocda/huridoca.nsf/FramePage/Subject+indigenous+Sp?OpenDocument

UNESCO: Gure aniztasun sortzailea
www.unesco.org/culture/policies/ocd/html_sp/foreword.shtml

UNESCO: Munduko Herri Indigenen Nazioarteko Hamarkadaren Kultur Erroak
www.unesco.org/culture/indigenous/html_sp/workshop.shtml

UNESCO: *Indigenen Identitateak: ahozketasuna, idatziak eta teknologia berriak* Nazioarteko Solasaldiak
www.unesco.org/culture/indigenous/html_sp/bookfair2.shtml

OMPI/WIPO: Jabetza Intelektualaren Munduko Erakundea
www.OMPI.org/index.html.es
www.wipo.int/globalissues/tk/index-es.html

Aniztasun Biologikoari buruzko Hitzarmena
www.biodiv.org/default.asp?lg=1

CDB, Article 8(j): Traditional Knowledge, Innovations and Practices
www.biodiv.org/programmes/socio-eco/traditional/default.asp

Lanaren Nazioarteko Erakundea
www.oit.org

Europako Batzordea: *Support for indigenous people. Working document of the commission of may 1998*
http://europa.eu.int/comm/development/lex/en/1998/work_98_population_01.htm



Nazio Batuak eta Herri Indigenak

Nd

Nazio Batuen Erakundearen
ekintzen berri jaso
nahi baduzu...



Zatoz **UNESCO** Etxera.

Bertan, Nazio Batuen Erakundearekin
lotutako dokumentazio zentroa eta
liburutegia dituzu

UNESCO Etxearen Helbidea:

Urquijo Zumardia, 60 nag. esk.

48011 BILBAO (Bizkaia)

Tel.: 94 4276432

Faxa: 94 4272548

e-posta: hezkuntza@unescoeh.org

www.unescoeh.org

